

Gamarrako Parkea: familiarterko aisialdia 60 urtez

Gasteizko kirol-instalaziorik handiena 1964an inauguratu zuten, Zadorra ibaiaren ertzeko igerileku naturalaren ondoan.



Egilea: Olga Jiménez

Gamarrako historiak Arabako hiriburuko bizitzaren zuri-beltzeko estapak dakartzigu gogora. 1964. urtea funtsezkoa izan zen industriaren hedapenean, eta horrek milaka pertsonaren exodoa ekarri zuen, zeinek bizitokia aurkitu eta sustraiak errotu baitzituzten beti abegikorra izan den hiri batean. Zadorra ibaiaren ertzean, familiek elkartzeko eta dibertitzeko lekua aurkitu zuten. Tranpolin txiki bat, 1959an eraikitako igerileku atxiki bat zuena, gehi merenderoa, izan ziren abiapuntua. Instalazio apal hark bainularien gogoa betetzen zuen. Gainerakoa zelaia zen. Irekiera ofizialak hiru igerileku ekarri zituen: haurrentzakoa, familientzakoa, eta olinpikoa. Ondoren, laugarrena egin zen.



Denborarekin, futbol- eta eskubaloi-kantxak, bolatokia, atletismo-pista eta hockey-zelaia egin ziren, baita lau pilotaleku ere. Udalak, garai hartan Luis Ibarra alkatea buru zela (1957-1964), hamahiru milioi pezeta inbertitu zituen lehenengo fasean. Haren agintaldian, hiriak hazkunde demografiko eta ekonomiko nabarmena izan zuen, hirurogeita hamarreko hamarkadaren erdialdera arte iraungo zuena.

Familia osoak, uda hiritik kanpo igarotzerik ez zutenak, Gamarrara joan ohi ziren, poltsak eta hozkailuak aldean zeramatatzatela. "Gamarrako hondartza" probintzia mugakideetatik –batez ere Bizkaitik eta Debagoienetik– etorritako pertsonen helmuga ere bihurtu zen udan.

Gamarrako Parkea hiriko ipar-ekialdean dago. Gaur egun, Gasteizko kirol eta aisialdiko esparru handienetako bat da, 186.000 metro koadroko azalera baitu. Gainera, Eratzun Berdearen zatia da –paisaia-balio handia du horrek–, eta barrutik Zadorra ibaia igarotzen da. Kirol-esparruak kanpoko lau igerileku barne hartzen ditu, eta kirol-jarduera desberdinetarako eskaintza zabala: belodromoa, errugbi- eta futbol-zelaiak, tenis- eta padel-pistak, saskibaloirako eta hondart-

za-boleirako kantxak, zenbait frontoi, minigolfa eta bolatokiak. Horiek urte osoan erabil daitezke, udako kanpainatik kanpo. Eskaintza horri Kirolklub zerbitzua gehitu behar zaio, gimnasioa eta guztientzako eskolak dituen, haurrentzako jolas-eremua edo abentura-parke moderno bat ahaztu gabe.

Gasteizko Udalak ate irekien jardunaldiak antolatu ditu ekainaren 21, 22 eta 23rako, herritarrek gure hiriko instalazio aitzindari horretara hurbildu eta "Gamarrara berriro deskubritu" dezaten.

Leku berezia da, eta berdegune zabalak ditu. Horren erakusgarri dira ia bi kilometroko heskai-lerroa osatzen duten 11.000 landare inguru. Lizarrak, ezkiak, platanoak, akaziak, astigarrak eta izeiak dira nagusi.



Udako denboraldia hasten denean, parkeak bizia berreskuratzen du. Familiari aisialdi eta atsedenerako eskaintza

paregabeaz eta gerizpe zabalez disfrutatzen dira. Kirolerako eskaintza ere apartekoa da, udako igerilekuez gain, udazkenean eta neguan ere dibertsioa bermatuta baitago hala haurrentzako esparruetan, abentura-parke modernoa barne, nola futbol- eta saskibaloikantxetan, frontoietan edo padel- eta tenis-pistetan, lagunarteko kirol-partidetarako aproposak baitira.



60 urtek istorio eta pasadizo ugari utzi dituzte, hiria aldatu eta modernizatzen zen bitartean. 2012an, Green Capital izendatu zuten Arabako hiriburua, eta nazioarteko aitormen hori filosofia eta hiri-marka bihurtu zen.

Gamarrek bere jatorriari eusten dio: familiarterako aisialdia, kirol- eta gizarte-eskaintza, esparru seguru eta zaindu baten barruan.



Aimar García eta Mikel Flores

“Udaro, gutxienez pare bat aldiz, Gamarrara hurbiltzen gara. Igerilekura etortzen gara, eta saskibaloian, frontenisean, mahaitenisean edo futboleant jokatzen. Leku lasaia da”.



Simón Palacios eta Saray González

“Zenbait aldiz etorri gara. Igerilekua gustatzen zaigu. Dena da eroso. Familiarekin etortzen gara, haurrentzat oso seguru delako. Igerilekuetan sorosle asko daude, eta jendea oso lasaia da. Familiartean disfrutatu daiteke. Eraberritzeko lanekin asko hobetu da. 100 puntutik 100 ematen diogu”.



Esaú eta Noa Copete

“Udan ohiko lekua da guretzat. Eguzkia atera orduko etortzen gara, kirola egitera eta futboleant jokatzen. Gustuko dugu eremu zabalak dituelako eta jendepilaketarik ez dagoelako. Eskaintza zabala da: zabuak, igerilekuak edo futbol- eta saskibaloikantxak. Eta itzalak, ezinbestekoak beroa handia dagoenean.”



Lilí Osuna eta Maite Osorio

“Leku atsegina da, zabala, ondo gainbegiratu eta koordinatu. Ezin hobea da familian egoteko, eta guztiz seguru”.



Tomás Michell eta Iñaki Rodríguez

“Duela 10 urtetik bizi naiz Gasteizen. Ezagutzen dut Gamarra. Igerilekuak eta barbakoa gustatzen zaizkit. Familiarekin eta lagunekin etortzen gara, eta egun osoa ematen dugu hemen”, dio Tomás Michellek. “Ni Abetxukun bizi nintzen. Gogoan dut leku batzuek ikuspen eta segurtasun gutxiago zutela. Horiek kendu zituztenetik, askoz hobeto daude. Egund osoa ematen dugu hemen”, adierazi du Iñaki Rodríguezek.

Informazio gehiago:

[Gasteizko Udalaren webgunea](#) - [Udako kanpaina Mendzorrotzan eta Gamarran](#)